

BEIJINGETIK 20 URTERA

Emakumeen ahalduntzeak gizadia
ahalduntzen duelako

 JENDARTEA / Nerea GOTI

Beijingeko Emakumearen Konferentziatik hogeit urtera, Nazio Batuak Emakumeak 2015eko garapen agenda lantzen ari da. Eskubideak gauzatzea helburu, ekonomiak eraldatzeko beharra jartzen du lehen lerroan. Klean, berri, emakumeek politiken alaketan ahotsa eta eragina izan nahi dute, eskubide unibertsalak bermatzeko boterea.

Hogei urte igaro dira jada Beijingo Emakumearen Konferentzia izan zenetik, eta, hala, bilkura hartatik hona munduan gertatu denaren ebaluazioa egin nahi izan dute estatuek, Nazio Batuek, mugimendu feministak, gizarte mugimen-

duek... Ingurura begira, emakumeen egoeraren gainean egin dako azterketa horrek emaitza eta nabardura ezberdin asko utzi ditu, baina, betiere, hausnarketa global komun baten baitan: aurrerapausoak izan dira, bai, baina oraindik ere bide luze-luzea dago aurretik, baita alaketarako erresistentzia ugari ere.

Beheko irudian Begoña Lasagabaster, Nazio Batuak Emakumeak erakundeko Politika Dibisioaren zuzendaria, joan den astean Bilbon izandako jardunaldietan. Marisol RAMIREZ | ARGAZKI PRESS

Nazio Batuak Emakumeak erakundeak dioenez, Beijingo Ekintza Plataformak bizitzaren arlo guztietan irudikatu zuen genero berdintasuna, baina, al-diz, ez dago egitasmo hori bete duen herrialderik. Duela hogeit urte estatuei ezarri zitzaizkien etxeko lanen artean lehen-tasuna zuen emakumeek eremu guztietan jasaten duten indarkeria ezabatzeak. Orduan zehaz-tutako lan ildoen artean, emakumeen pobrezia eta osasun arazoei aurre egitearen beharra ere agertzen zen, baita komuni-kabideetan eta erabaki eremue-tan emakumeen ahotsa indar-tzeko deia ere, besteak beste.

Hogei urteren bueltako hausnarketa global honetan, Emakundek ahots bi elkarren aurre-an jarri ditu orain gutxi Bilbon, Beijingeko biltzarretik bi ha-markadara emakumeek mun-duan bizi duten egoera aztertze-ko: Begoña Lasagabaster Nazio



Batuak Emakumeak-eko Politika Dibisioko zuzendaria eta Begoña San Jose Parte-hartze eta Berdintasunerako Emakumeen Elkarteen koordinatzailea eta Politika Feministako Forumeko kidea.

GARAPENERAKO GIZARTE POLITIKAK

Hausnarketa orokor bat utzi zuen Lasagabasterrek Bilbon: «Bigarren Mundu Gerraren ostetik inoiz baino aberatsagoa baina baita ezberdinagoa ere da mundua». Horren adibideak jarri zituen: hezkuntzara heltzeko inoiz baino aukera gehiago dituzte emakumeek, baina eurenak dira txarren ordaindutako lanpostuak edota lan baldintza txarrenak. Duela hogeitau urte Beijingen emakumeenganako indarkeria ezabatzeke neurriak eskatu ziren. Lasagabasterrek gogora ekarri zuen Osasunaren Mundu Erakundeak adierazitakoa: emakumeekiko indarkeria mundu mailako «pandemia» da. Indarkeriaren argazki horretan, 2014. urtea «oso latza» izan zela nabarmendu zuen, eta emakumeen aurkako muturreko jarrerak dituzten Boko Haram bezalako mugimenduak edo mundu mailako gatazkak aipatu zituen.

Nazio Batuek Emakumeak-ek argitaratu duen «Emakumeen garapena munduan» izeneko txostenaz ere hitz egin zuen Bilbon Lasagabasterrek. Sarreran bertan, funtsezko ideia bat luzatzen du txostenak: «Ekonomiak eraldatu eskubideak gauzatzeko». Finean, gizarte politikak eta politika ekonomikoak batera joatearen beharra planteatzen du azterketak, lehentasunak hiru arlotan finkatuz: emakumeentzako lan duinak, genero ikuspegiko gizarte politikak eta eskubideetan oinarritutako politika makroekonomikoak.

Txostenak planteatzen duenez, ordaindutako lana emakumeen berdintasunaren zutabe nagusia da. Hori bai, emakumeen eta gizonen artean ordaindu gabeko zaintza lanak partekatzea, emakumeek aisialdirako eta heziketarako astia izatea, emakumeek bizitza maila egoki baterako gutxieneko diru-sarre-



Parekidetasunaren aldeko aldarriek oraindik ere bizi-bizirik egon behar dute.

Jagoba MANTEROLA | ARGAZKI PRESS

rak izatea eta emakumeek tratatuina jasotzea ere bermatu behar du ordaindutako lanak.

Nazio Batuen arabera, politika makroekonomikoak ezin dira inolaz ere generoaren ikuspegiatik neutroak izan. «Helburu sozialak izan behar dituzte politika makroekonomikoek, enplegu duina sortu behar dute, zerbitzuetan eta gizarte transferentzietan inbertsioak gauzatzeko baliabideak bideratu behar dituzte. Erabaki makroekonomikoak hartzeko orduan gizarte zibilak benetako parte hartzea izateko bideak sortu behar dira, emakumeek barne».

ESKUBIDEAK BAI, BERMEAK?

Begoña San Josek zenbait eskakizunetan zentratu zuen Bilbora ekarritako mezua. Lehenik eta behin, eskubideak unibertsalak ez badira pribilegioak direla nabarmendu zuen. Emakumeen berdintasunerako eskubidearen unibertsaltasunaren aurkako jarrerak azken hogeitau urteotan areagotu egin dela adierazi zuen. Arrazoi kulturalak, tradizionalak eta erlijiosoak tarteko, emakumei gizonei jartzen ez zaizkien murrizketak ezartzen ari dira «nortasun berezituak aitzaki». Horrekin batera, austeritate politikak ere aitzaki direla esan zuen, osasun arreta edo mende-kotasunagatiko arreta bezalako eskubideen unibertsaltasuna kolokan delako uneotan.

Emakumeen askatasunean eta emakumeek euren gorputzen gainean dituzten eskubideengan eragiten duten integritasmoak ere izan zituen hizpide San Josek. Integrismo musulman eta katolikoarekin batera, baina, «integrismo ekonomikoa» ere kontuan hartu beharrekoa dela esan zuen. «Neoliberalismoa ez da bakarrik esaten dena, baizik eta gauza askoren aurrean isilik egotea», zehaztu zuen.

San Joseraren esanetan, «eskubideak ezertxo ere ez dira bermatuta ez badaude, boterea daukan norbaitek betearazten ez baditu». Zentzu horretan, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala eta berau garatzen duten hitzarmenak, CEDAW kasu,

aipatu zituen. Izan ere, Nazio Batuek horiek babestea ez da nahikoa gero erakundearen baitan estatuetako gobernuak badi-tuzte kontrolpean botere legegile, exekutiboa eta judiziala. Nazioarteko Zigor Auzitegiak genozidioa, gizartearen aurkako krimenak eta gerra krimenak epaitzeko daukan gaitasuna ere izan zuen hizpide, eta, nabarmendu zuenez, «tamalez feministak ez ginen gai izan bortxaketak ere gerra krimentzat hartuak izan zitezen».

Finean, planteatu zuenez, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala eta berau garatzen dituzten hitzarmenak betetzen direla ziurtatzeko mekanismo eraginkorrik ez dago. Estatuek jotzen duten papera ere aipatu zuen San Josek. Salatu zuenez, estatuak kontuak ematera derrigortuta daude, baina «nahikoa dute gauzak ondo doazela esate hutsarekin».

Eskubideen berme izan behar-



Adituen esanetan, asko egin den arren, bide luzea dago egiteko parekidetasunaren alde.

Juanan RUIZ | ARGAZKI PRESS

ko litzatekeen NBE pertsona arruntetatik urrunegi dagoela komentatu zuen San Josek. Bortere guztiak gobernuetan kontzentratzen direla eta gobernu kanpoko erakunde partaidea bermatzeko bide estuak daudela salatu zuen, eta, testuinguru horretan, Hego Amerika eta Karibeko gobernu kanpoko erakunde lana nabarmendu nahi izan zuen.

San Joseren esanetan, ezinbestekoa da gizarte erakunde parte hartzea bermatzea, «esku-bideetan sinesten dutelako edozein egoera eta baldintzaren gainetik». Gaurtik irailera bitarte Nazio Batuen biltzar nagusira begira egin beharreko «lan politiko mardula» ere ekarri zuen gogora, eta garapen jasangarriaren bidean emakumeek aurrez aurre duten erronka azpimarratu zuen, ekologismoaren eta feminismoaren arteko loturak sendotzearen beharrezana nabarmenduz.

A zer astea!

Joxean Agirre

Matematikak edo zenbakien pilaketa gehiegizkoak ondoeza edo zorabio moduko bat eragiten digu pertsona sentibera askori. Hauteskunde biharamunean sufritu egin nuen horrenbeste portzentaje eta kopuru potoloekin. Baina, zorionez, hirugarren egunerako hasi ziren egunkarietan literatura politikoa egiten.

Gurean eta “Berria”-n irakurri nituenetik Iñaki Zubimendiren batekin eta Fermin Munarrizen “Cómo llamar a los que votan a corruptos” izenekoarekin gogoratzen naiz, edo euskaraz Petxarromanen bat eta Idurre Eskisabelen “Zaborraren garrantziaz” ditut gogoan. Azken honek jendarte ereduie edo herritar izatearen paradigmei buruz egiten zituen gogoetak maila handikoak iruditu zitzaizkidan. Badakit badagoela beste literatura politiko mota bat, Madridil aldean azkenaldi honetan oso modan dagoena, hagiografiatik oso gertu dabilena.

Pablo Iglesiasi lauzpabost biografia edo el-karrizketa liburu idatzi dizkiote, esate baterako, eta Juan Carlos Monederori ere beste bat. Manuela Carmenak ere idatzi du berea, “Porque las cosas pueden ser diferentes”. Katalunian salduenen artean dabilena, Teresa Forcada moja beneditarraren eta Esther Vivas aktibistaren artean egindakoa.

Fenomenoa zabala da. Munduko beste punta batean, Reykjaviken, Jon Gnarr izeneko komiko ezagunak pertsonaia bat asmatu zuen bere telebistako programan; Tony Blair eta Groucho Marxen nahasketa gisa defini zitekeena. Arrakasta izan zuen, alderdi bat sortu zuen (Alderdi Hobeia) eta hiriko alkatetza eskuratu zuen. Hark ere badu bere liburua, “Nola iritsi nintzen alkatetza izatera”. Eta luze jarrai genezake.

Gurean ez du literatura genero honek uztat handirik eman aspaldian, baina Martin Garitanok agindu du legealdiko kronika bat idatziko duela eta hori hagiografia bat

baino interesgarriagoa izan daiteke. Astea, politika gora eta politika behera, gogorra zihoan eta politikatik at ere bizitzarik ba ote zegoen jakiteko Mursegok (Maite Arroitauregi) eta Harkaitz Canok Literaturia ekitaldien irekiera gisa Zarautzen eman zuten “In vino veritas” ikuskizuna ikustera joan eta txundituta atera nintzen, eta ni bezala beste asko, ikusi genuenarekin, gutxitan lortzen baita emanaldi hibridoetan (musika eta poesia kasu honetan) halako konplizitaterik artisten artean eta uztarketarik generoen artean.

Politikan zer gerta ere, artea helduleku gisa hortxe daukagula pentsatuz joan nintzen igandean Bilbora Ibilaldiko petoa jantzita egun-pasa egitera (zenbat janzten duen peto batek), baina Athletici buruz hitz egiten eman genuen egun santu osoa. Bilbon eguna pasata, ia konbentzitu ninduten ez politikak eta gutxiago arteak, futbolak irekiko duela euskal bidea. •